

# Whatever works

## *Genero nahasmendua* itzultzearen harira sortutako gogoetak

ANA MORALES

Lanbidean emandako hogeita bost urte pasatxo honetan ahalegindu naiz literatur itzulpenearako jardunbide egokien bilduma pertsonal bat osatzen, halako gidalerro batzuk, nolabait ere mapa gisa lagun diezadaketanak denboran zehar itzulpen egokiaz eratu dudan ideiarenean ildotik ibiltzen. «Arau» guztiok ez dira nireak (egia esan, bat ere ez, segurutik, baina «nire» deitzen diet nork irakatsi zizkidan edo non irakurri nituen gogoratzen ez dudan arauei); inori ikasitakoak diren horiek irakaslearen izenarekin dauzkat bataiatuta, esker onez. Gehienak negatiboan definituak ditut, «saihestu beharreko tentazio» gisa, alegia. ...Kristau hezkuntzaren ajeak, nonbait. Batzuek edozein motatako itzulpenearako balio dutela uste dut (1, 2), eta beste batzuk, aldiz, gehiago lotzen zaizkiola literatur itzulpenari (3tik 6ra bitartekoak). Hona hemen, bada, saihestu beharreko nire tentazioen bildumaren azken aurreko bertsioa:<sup>1</sup>

1. *Constantine Danilevskyren araua*: ez betikotu, ez hedatu begi bistakoak diren erroreak (horrek zerikusia du batez ere beste itzulpen batzuetatik hitzez hitz kopiatu beharreko aipamenekin, eta errore argiak zuzentzea proposatzen du).
2. *María Nóbregaren araua*: ez idatzi zentzurik ikusten ez diozun esaldirik.
3. *Manuel de los Reyesen araua*:
  - a) Jatorrizkoan bereizi zer dagokion idazlearen estiloari eta zer jatorrizko hizkuntzaren estiloari.
  - b) Idazlearen estiloa ispilatu, ez hizkuntzarena.
4. *Ez sinplifikatzearen araua*: idazlearen estiloa islatu behar dudala kontuan izanda, ez sinplifikatu jatorrizko testua, ez hiztegia, ez sintaxia, ez erregistroan.
5. *Ez edertzearen araua*: idazlearen estiloa islatu behar dudala kontuan izanda, ez apaindu jatorrizko testua, ez hiztegia, ez sintaxia, ez erregistroan. Batez ere, ez aprobetxatu itzulpena jatorrasun erakustaldi bat egiteko justifikaziorik gabe.

1. Inoiz bertsio laburrago bat argitaratu dut: Morales, Ana. «Liburuaren 200. urteurrenean egindako hitzaurrea», in Austen, Jane. *Harrotasuna eta aurrejuzguak*, Donostia: Elkar, 2013, 39.-41. or.

6. *Ez gainazaltzearen araua*: ez gehiegi esplikatu edo interpretatu jatorrizko testua. Ez liluratu jatorrizko berben etimologiekin edo osagai gardenak dituzten hitz elkartuekin gaur egun berbok lexikalizatuta badaude jatorrizko hizkuntzan, edo testuak justifikatzen ez badu.

\* Arauok ez dira nahitaez bete behar jatorrizko testuan kasuan kasuko ezaugarri linguistikoa agertzen den toki berean; konpentsazioaren teknika aplikatuta, testuko beste leku batzuetan berreskura daitezke, toki berean ezinezkoa bada.

Jakina, «arau» deitzen badiet ere, neure buruarentzako «gomendioak» baino ez dira, eta betiere *cum mica salis* eta malgutasunez aplikatzekoak, doitasunaren artisautza den gure lanbide honetan ia guztia den bezala. Gorago esan dudanez, haien helburua da niri laguntzea buruan daukadan adarbakar urdin horren atzetik joaten, hau da, *itzulpen egokizat* dudan horren arrastoari segika. Hala ere, ez dut oraindik esan zein den niretzat horren definizioa. Zorionez, orain gutxi ederto formulatuta aurkitu dut, Kate Briggs itzultzailearen «How do we judge translations?» artikuluan.<sup>2</sup>

Helen Lowe-Porterren esaldi batetik abiaturik —«Look to the whole, the translator asked» [Begiratu osotasunari, eskatu zuen itzultzaileak]—, Briggssek itzulpenak epaitzean ohikoa izaten den jokabide bat gaitzesten du; alegia, lupaz bilatzen ibiltzea ustezko hutsegitea, distrakzio unea, akats konkretua edo irtenbide ez hain biribil hori (zeina beti izan daitekeen itzultzailearen erabaki kontziente bat), eta horren arabera ebaluatzea itzulpen osoaren kalitatea. Michelle Woods irakasle, itzultzaile eta itzulpenaren ikertzaileak «harrapatu zaitut» deitzen dio era horretako kritikagintzari —dio Briggssek—, eta gehitzen du sarritan kritikariak halako «errore»etan laketzen direla beren preferentzia pertsonalak justifikatzeko eta beren burua adituen posizioan legitimatzeko. Ebaluazio modu horren ordez, Woodsek proposatzen du osotasunari begiratzea, ikustea nola funtzionatzen duten itzulpenaren pieza guztiek elkarrekin eta ikuspegi zabalago batez kontsideratzea nola erlazionatzen den itzulpena bere zirkunstantzia eta motibazioekin.

Ildo beretik, Briggssek alternatiba posible gisa proposatzen ditu David Pyeren arabera<sup>3</sup> artisau lan onaren ezaugarri diren bi irizpideak: «sendotasuna» (*soundness*) eta «liraintasuna» (*comeliness*). «Sendotasuna» izango litzateke artisauak inoren diseinuaren arabera egindako objektuak «indarrak transmititzeko eta erresistitzeko duen gaitasuna», hau da, itzulpena irakurri, erabili, iruzkindu, aipatu, aplikatu eta aktibatu ahal izatea —dio Briggssek (hots, «funtzionatzea», esango nuke nik)—. «Liraintasuna», berriz, izango litzateke diseinatzaileak (hau da, idazleak) bilatzen zuen forma estetikoaren ezaugarri eta proportzioekin objektuan (itzulpenean) islatzeko gaitasuna.

2. Briggs, Kate. «How do we judge translations?», in *Literary Hub*, 2018ko apirilaren 19a. Azken kontsultaren data: 2018ko maiatzaren 28a. <https://lithub.com/how-do-we-judge-translations/>. Hemen ere argitaratua: Briggs, Kate. *This Little Art*, Fitzcarraldo Editions, 2018.

3. David Pye Londresko Royal College of Art-eko altzarien diseinuko irakaslea zen. Haren bi obra nagusiak *The Nature of Design* eta *The Nature and Art of Workmanship* dira.

Uste dut Woodsek proposatzen duen ikuspegi holistiko hori eta Briggsek Pye diseinu irakaslearengandik hartutako bi ezaugarri horiek asko hurbiltzen zaizkiola nire «arauak» biltzean modu gutxi gorabehera inkontzientean urtez urte gogoan marrartzuz joan zaidan itzulpen egoiaren ideari. Eta uste dut horixe baieztatzera datorrela *Genero nahasmendua* itzultzeko prozesuaren ondorioz nire arau bildumari gehitu diodan azken araua, zazpigarrena. Honela dio:

### 7. araua: *Whatever works*

Jabetzen naiz formulazioak ez duela oso itxura, esan dezagun, akademikoa, eta gainera azkenaldion gauza inportante guztiak izendatzeko gure artean zabaldu den joera anglofonoaren beste aje bat dirudiela, baina berba horiekin bururatu zitzaidan araua, eta uste dut laburbide eroso dela proposatu gura dudana adierazteko.

Sinpleki esanda, arau horrek esan nahi du itzulpena egokia izan dadin —sendoa eta liraina, Pyeren terminoak erabiliz, hau da, funtziona dezan eta jatorrizkoaren ezaugarri formalk eta proportzioak gorde ditzan— zilegitzat jotzen dudala obraren pasarte bakoitza itzultzeko itzultzailearen ustez toki konkretu horretan ondoen txertatzen den baliabidea erabiltzea, behar izanez gero itzulpenean zehar irtenbide bat baino gehiago eman ez jatorrizko termino edo formulazio berari, baina ordain horien arteko koherentziarako euskarriak jarritz itzulpenean, eta euskarri horiek jatorrizko testutik bertatik hartuz (originaletik bertatik birziklatutako materiala erabiliz, alegia), testua edo obra bere osotasunean kontuan hartuta.

Aldizkari honetan bertan inoiz beste lankide batzuekin argudiatu dudanez,<sup>4</sup> itzulpen memoriarekin eta glosario automatikoekin lan egiteak onura ikaragarriak ekarri dizkigu itzultzaileoi produktibitatean eta koherentzian, baina beharbada haren albo kalte nagusia izan da batzuetan testu osoaren batasun organiko hori bistatik galtzea, eta, esaldi edo paragrafo mailaren marakoan giltzapeturik, geure burua mugatzea esaldi edo paragrafo berberak beti berdin ematera, testuinguru zabalagoa (dena delako dokumentuarena nahiz dokumentua edo obra txertatuta dagoen diskurtso zabalagoarena) ahaztuta, eta itzulpen egokiagoetarako bidea ekar lezakeen malgutasuna baztertuta.

Bestalde, ez dator txarto gogoratzea terminologiaren unibokotasuna aspalditik kolokan jarritako ideia bat dela, Wüsterrengandik berarengandik hasita: ez da egia, ezta zientzia «gogor»-retan ere, kontzeptu bat termino bakar batez adierazten denik, ez eta termino bakoitzak adiera bakar bat duenik ere.<sup>5</sup>

---

4. Bernaola, I. Morales, A. I. eta Payros, I. «Ordenagailuz lagundutako itzulpena eta itzulpenaren kalitatea», in *Senez*, EIZIE, 2003ko abendua, 26. zk., 1.-28. or. Azken kontsulta: 2018/06/01.  
<http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Senez/20031210/bermopa>

5. Gauza bera azpimarratzen du Igone Zabalak: «Terminologia in vivo aztertzeke modu horrek berehala utzi du agerian terminoen unibokotasuna eta monosemia idealizazio bat baino ez direla». Ikus Zabala Unzalu, Igone, «Terminologia akademikoa», in *31 eskutik*, EIZIE, 2013ko otsailaren 1a. Azken kontsulta: 2018/05/29.  
<http://31eskutik.eizie.eus/2013/02/01/terminologia-akademikoa/>

Esan dut *whatever works* («funtzionatzen duena, horixe erabili») araua aplikatzea «zilegi» iruditzen zaidala, baina esan beharko nuke aplikatu «beharrekoa» iruditzen zaidala bestela jokatzeak testuaren irakurgarritasuna (aulkiaren sendotasuna, aulkiaren gainean eroso jesarri ahal izatea) oztopatzen duenean, batez ere *Genero nahasmendua* bezalako liburuetan. Irakurgarritasunak eta koherentziak talka egin dutenean, *whatever works* izan da nire aukera, hau da, irakurgarritasuna lehenestea, fidelitasunaren izenean.

Fidelitasunaz eta irakurgarritasunaz idazten jarraitu aurretik, parentesi bat egin nahi dut hitz pare bat esateko *Genero nahasmenduaz*. Judith Butlerren obra hori saiakera filosofiko bat da, 1990ean lehenengoz argitaratua, pentsamendu feministari norabide berria eman eta *queer* teoriari bidea ireki zion lan giltzarria. Gainbegiratu kritikoa egiten die aurreko hainbat filosofoen pentsamenduari, haien terminologia espezifikoak baliatuz, eta proposamen berri bat aurkezten du, hizkera eta terminologia berri bat erabiliz. Butlerren prosa oso trinkoa da, kontzeptu konplexuz betea, abstrakzio handikoa eta oso ñabartua: filosofiako termino teknikoek gain, hiztegi arrunteko hitz ezohikoak baliatzen ditu, edo hitz arruntak ezohiko adieretan; sintaxiari dagokionez, ñabardurak eta zehaztasunak gehitzeko joera horren ildotik, oso periodo luzeak idazten ditu, mendeko esaldi askorekin, eta beste obra batzuen aipamen eta erreferentzia ugari txertatuz.

Irakurgarritasunaren gaira itzulita, argudia liteke (eta ni, oro har, bat nator) jatorrizkoa konplexua baldin bada hala behar duela itzulpenak, baina uste dut proportzionaltasunaren ideia giltzarria dela hemen, eta oso aintzat hartzekoa dela gorago aipatutako Woodsen oharra; alegia, itzulpena ebaluatzean kontsideratu beharko litzatekeela nola erlazionatzen den testua bere zirkunstantzia eta motibazioekin. *Genero nahasmenduaren* kasura bueltatuz, liburua mendebaldeko tradizio filosofikoan txertatzen da, baina, ingeleseko irakurleak aspaldidanik eduki baditu ere bere esku –duela hamarkadak edo are mendeak ere, eta unibertsitateetako liburutegi guztietan–, bere hizkuntzara itzulita Hegel, Nietztsche, Freud, Lévi-Strauss, Kristeva, Irigaray, Foucault, Sartre, Beauvoir, Derrida, Lacan eta abar (Butlerrek aztertzen dituen pentsalarietako batzuk besterik ez aipatzearren), euskal irakurleak, tamalez, salbuespenak salbuespen, ez du halako zortetik izan, eta gehienbat obra honetan bilduta jaso beharko ditu euskaraz, lehen aldiz, pentsalari horien erreferentzia guztiak batera, gehi Butlerren ekarpen berriak. Hortaz, sendotasun eta liraintasun irizpideak erabiliz, uste dut euskal irakurleari zor zaiola ingeles irakurleak aurkitutako jatorrizkoa bezain konplexua den bertsio bat, bai, baina ez, ordea, hura baino zailagoa edo ilunagoa.

Hori guztia esanda, *whatever works* arauaren aplikazio praktikoa bat erakutsi gura dut. Esan dut batzuetan Butlerrek ezohiko adieretan erabiltzen dituela lexiko arrunteko hitzak. Horietako bat *discontinuity* da (eta, gutxiagotan agertzen badira ere, haren antonimoa, *continuity*, eta bieci dagozkien izenondoak: *discontinuous* eta *continuous*, hurrenez hurren). Butlerrek maiz erabiltzen du *discontinuity* terminoa, nahiko modu karakteristikoan.

Hona liburuko lehen adibidea:

- a. Taken to its logical limit, the sex/gender distinction suggests a radical discontinuity between sexed bodies and culturally constructed genders.

(*Gender Trouble*,<sup>6</sup> 9. or. Adibide guztietako azpimarrak nireak dira. ).

Beste adibide batzuk:

- b. The very notion of «the person» is called into question by the cultural emergence of those «incoherent» or discontinuous gendered beings. (22. or)
- c. The spectres of discontinuity and incoherence, themselves thinkable only in relation to existing norms of continuity and coherence. (22. or)
- d. the disconcerting convergence of heterosexuality and homosexuality in her/his person are only occasioned, but never caused, by his/her anatomical discontinuity. (32. or).

Liburua itzuli ahala osatuz joan nintzen glosarioan, behin-behineko ordain posible hauek bildu nituen, besteak beste:

EN Discontinuity

EU jarraitutasun eza

haustura

etena

gorabehera

ez-bateratasuna

komunztadura eza

desadostasuna

EN Discontinuous (adib.,: «*discontinuous being*»)

EU (izaki) ez-jarraitua

jarraitutasun gabea

hautsia

etena

gorabeheratsua

hautsia

akastuna?

ez-lerrokatua

ez-zuzena?

ados ez dagoena?

adostasun gabea?

---

6. Butler, Judith. *Gender trouble*, 2. edizioa. New York: Rutledge, 1999. Ingeleseko adibide guztiak hortik hartuak dira, eta testuan txertatuko ditut dagozkien orrialde zenbakiak.

Adibideon testuinguruetatik erraz igar daiteke jatorrizko terminoak adierazten duen ideia: elementu batzuen arteko desadostasuna edo bat ez etortzea. Nire balizko ordainen ugaritasun eta trakestasunak, bestalde, aditzera ematen du batek ere ez ninduela guztiz asetzen: izenerako, *desadostasuna* batzuetan ondo egokitzen zen testuan (*gorputz sexudunena eta kulturalki eraikitako generoen arteko desadostasuna*), baina beste batzuetan lausoegi edo ulergaitz geratzen zen (*desadostasunaren espektroa?*).

Izenondoa, zorionez, gutxitan azaltzen zen, baina berak ematen zidan buruhauste gehien: konbinazio zentzugabeak ateratzen zitzaizkidan (*izaki ez-lerrokatuak?*, *ados ez dauden izakiak?*), edo kontzeptua desitxuratzen zutenak (*izaki etenak* edo *izaki hautsiak* esatea ez zen egokia, ideia ez baita izaki batzuk etenda edo zatituta daudela, ezpada zerbaitekin bat ez datozela; (*izaki etentzaileak?*, *etendunak?*, *etendura(zko) izakiak?*).

Bi kezka nituen: batetik, ezina zirudien izena eta izenondoa sustrai berarekin emateak, ez testuinguru guztietan bederen; bestetik, uste nuen garrantzitsua zela jatorrizko terminoak atzean zuen metafora itzulpenean jasotzea, Butlerrek maiz darabilelako terminoa liburuan. Beraz, metafora bisualizatzen saiatu nintzen. Hilabeteak eman nituen bueltaka, eta, ezustean, pasarte honek, liburuaren azken partean agertzen denak (eta zorigogorreko *discontinuity* hitza ez dakarrenak, bide batez esanda) arrasto bat eman zidan:

- e. Gender does not necessarily follow from sex, and desire, or sexuality generally, does not seem to follow from gender. (172. or.)
- e'. Generoak ez dio nahitaez jarraitzen sexuari, eta ez dirudi desirak, edo sexualitateak oro har, generoari jarraitzen dionik. (*Genero nahasmendua*,<sup>7</sup> 221. or.)

Irudi sinplea da, nahi bada, baina ordura arte nik neuk ez nuen ikusi: lerro jarraitu bat, bat-batean eten edo hautsi egiten dena. Azalpen hori birziklatzea erabaki nuen, eta honela moldatu nuen liburuaren hasierako esaldi hau:

- f. Within a language of presumptive heterosexuality, what sorts of continuities are assumed to exist among sex, gender, and desire? (xxx. or.)
- f'. Heterosexualitatea auresuposatzen duen hizkuntzan, zer-nolako lerro jarraitua suposatzen da dagoela sexuaren, generoaren eta desiraren artean? (6. or.)

Eta goiko a) adibidea, berriz, honela eman nuen:

- a'. Bere mutur logikora eramanda, sexu/genero bereizketak aditzera ematen du ez dagoela inolako lerro jarraiturik gorputz sexudunena eta kulturalki eraikitako generoen artean. (56. or.).

7. Butler, Judith. *Genero nahasmendua*, Donostia eta Andoain: Elkar eta Jakin, 2018. Euskarazko adibide guztiak hortik hartuak dira eta testuan txertatuko ditut dagozkien orrialde zenbakiak. Azpimarra guztiak nireak dira.

Eta b), berriz, honela:

b. ustezko lerro jarraitu hori «eteten» duten izaki generodun «inkohrente» horiek (73. or.)

Nahigabetzen ninduen arazoetako bat konpondua nuen, beraz: liburuan jasota geratuko zen pertsegitzen ibilia nintzen metafora. Hala ere, argi zegoen testuinguru guztietan ezinezkoa izango zitzaidala horrela ematea, gehienbat batzuetan formula laburragoren bat beharko nuelako. Bestalde, goiko zerrendetako aukera bakar batek ere ez zidan balio kasu guztietarako, tarteka emaitza ulergaitz, astun edo ortopedikoak sortu barik.

Zalantzen itsaso hondargabe honetan itolarrian nobilelarik, bat-batean, nire bildumarako zazpigarren araua errebelatu zitzaidan, distira itsugarriaz. Zer egin nezake arazoa konpontzeko? *Whatever works!* Nork behartzen ninduen soluzio bakarra ematera, horren prezioa baldin bazen pasarte irakurgaitzak sortzea? *Whatever works*, beraz. Kasu bakoitzean ondoen funtzionatzen zuen formula erabiliko nuen nire helburuak betetzeko. Zeintzuk ziren nire helburuak? Autoreak zerabilen metafora liburuan jasota uztea eta ideia hori testuinguru desberdinetan ahalik eta modurik txukun eta erosoenean formulatzea. «Lerro jarraitua / lerro etena» metafora liburua- ren hasieran behin ezarrita, horixe baliatuko nuen aurrerantzean, irudia laburki eta txukun erabiltzeko aukera neukanean. Hori ezinezkoa edo astunegia zenean, berriz, ideia ondo adierazten zuen soluziorik funtzionalenera joko nuen kasu bakoitzean, nahiz eta irtenbideak desberdinak izan edo metafora horren eremu semantikokoak ez izan.

Horretarako, bi bide hartu nituen nagusiki: bata, dagoeneko erabilia nuen metaforaren bertsio laburrago bat erabiltzea, hitz bakarrekoa. Irakurleak dagoeneko ezagutzen zuenez irudia, jatorrizko terminoaren itzulpena literala izan zitekeen:

g. «Intelligible» genders are those which in some sense institute and maintain relations of coherence and continuity among sex, gender, sexual practice, and desire. (23. or.)

g'. Genero «ulergarriak» dira nolabait koherentzia eta jarraitutasuna eratzen eta gordetzen dituztenak sexuaren, generoaren, jardun sexualaren eta desiraren artean. (74. or.)

h. In other words, the spectres of discontinuity and incoherence, themselves thinkable only in relation to existing norms of continuity and coherence, are constantly prohibited and produced by the very laws (...). (23. or.)

h'. Bestela esanda, (...) lege horiexek dira etengabe debekatzen eta aldi berean ekoizten dituztenak jarraitutasun ezaren eta inkoherentziaren mamuak, pentsaezinak lirakeenak, ezpada jarraitutasun eta koherentzia arauetikiko erreferentzian. (74. or)

Beste bidea autoreak kontzeptu bera adierazteko liburuan zehar zerabiltzan sinonimo edo kuasi-sinonimoak birziklatzea izan zen (adibidez, *dissonance* eta *felûre*, *discontinuity*-rako), baliokideok autorearen bedeinkapena zutelakoan. Horren arabera, nire hasierako zerrenda horie-

tako proposamen traketsak ezabatu, eta *diskordantzia*, eta *arrakala* aukeratu nituen *discontinuity*-ren hitz bakarreko ordainak behar nituenerako.

- h. Politics of sexual discontinuity. (119. or.)
- h'. Diskordantzia sexualaren politika. (198. or.)
- i. as *felûre*, discontinuity, metonymic slipage. (71. or.)
- i'. *felûre* gisa, arrakala gisa, lerratze metonimiko gisa. (137. or.)

Azkenik, hirugarren bide bat ere hartu nuen noizbait: autoreak termino baterako han eta hemen erabilitako sinonimo eta kuasi-sinonimoak abiapuntu hartuta, horiexen antonimoak edo kuasi-antonimoak baliatzea kontrako kontzeptua adierazteko. Esaterako, *continuity*-rako liburuan zehar autoreak darabiltzan formula alternatiboetako batzuk dira *lines of connection* (adibidez, «lines of connection among biological sex, culturally constituted genders and the “expression” or “effect” of both in the manifestations of sexual desire», 23 or.) eta *unity* (adibidez, «we see sex and gender denaturalized by means of a performance which avows their distinctness and dramatizes the cultural mechanism of their fabricated unity», 188 or.). Bada, *discontinuous* edo *discontinuity* emateko, bi formula horiexen (*unity*-ren eta *lines of connection*-en) antonimo edo kuasi-antonimoetara jo nuen batzuetan:

- j. «Sex» imposes an artificial unity on an otherwise discontinuous set of attributes. (146. or.)
- j'. «Sexuak» batasuna ezartzen dio ezaugarri solteen multzo bati. (146. or.)
- k. Transsexuals often claim a radical discontinuity between sexual pleasures and bodily parts. (90. or.)
- k'. Transexualek sarritan esaten dute ez dagoela inongo lotura beharrezkorik plazer sexualaren eta gorputz atalen artean. (161. or.)

Honaino, labur azalduta, *whatever works* arauaren aplikazio praktikoa termino arazotsu bat(zu)en itzulpenean. Baliteke araua hau ez izatea konpentsazio teknikaren eta terminologia-ren ez-unibokotasunaren beste izen bat baino. Hala ere, iruditzen zait zerbait gehiago ere bada: zuhaitzek basoa ezkutatu behar ez dutela gogoratzeko balio dit, hau da, garrantzitsuagoa dela testua sendoa eta liraina izan dadin saiatzea, batasun terminologiko edo fraseologikoari kosta ahala kosta eustea baino. Eta, horretaz gain, badagoela modurik, modu suprasegmentalik, koherentziari beste estrategia batzuen bidez eusteko, materiala jatorrizko testutik bertatik hartuz eta berrerabiliz. Izan ere, *whatever works* ez da *anything works*, baizik eta itzulpen unitatea testu osoa delako ideia berreskuratzea, eta xede testua ere pieza lotuen batasun organiko bat dela aldarrikatzea. Pieza horiek oihartzunak sortzen dituzte testu osoan, itzultzaileok geure alde erabil ditzakegunak.



Bitxia da nola arau hau positiboan eta baimen gisara formulatuta atera zaidan, ez bestek legez, debeku edo agindu bibliko mehatxagarrien forman, adierazmoldean berean ispiatuz bezala haren existentziak nire *traditora* gogo torturatuari ekartzen dion arindua. Batek daki, beharbada neure burua askatu dut inork ezarria ez zidan uztarri batetik, baina, edozelan ere, uste dut itzulpen egokiaren bilaketan on egingo didala *whatever works* araua nire bilduman idatzita ikusteak.

Orain dela gutxi nonbait irakurri diot Ara Malikian biolin jotzaileari gaur egun ez zaiola hainbeste axola nota guzti-guztiak partituran dauden legetxe jotzea, obra osoa interpretatzean transmititzen duen emozioa baizik. Gustatzen zait ideia. Hara, artisautza aipatu dut artikulu honen hasiera aldean, eta musikari baten gogoetarekin amaitu dut. Ez zaizkit, bada, iruditzen artisauak eta musikariak batere konpainia txarra itzultzaileentzat.

## Resumen

En este artículo la autora presenta su colección personal de «normas» o pautas para una «traducción adecuada». Entiende por «traducción adecuada» la propuesta por la traductora Kate Briggs, que, basándose en la definición de buena artesanía acuñada por el experto en diseño David Pye, se apoya en dos conceptos claves: *solidez* (funcionalidad) y *donaire* (equivalencia y proporcionalidad formal). La autora considera que para aspirar al logro de estas dos cualidades, es necesario adoptar la perspectiva holística que propone la investigadora de la traducción Michelle Woods, quien defiende considerar cada obra en su totalidad y como una unidad orgánica que ha de ser contemplada en el contexto amplio de sus circunstancias y motivaciones. En consonancia con esto, la autora presenta la «norma» incorporada más recientemente a su colección, *whatever works*, según la cual es lícito traducir cada pasaje de una obra mediante el recurso que mejor se integre en cada punto concreto del texto desde el punto de vista de la solidez y el donaire –aunque se den soluciones distintas a un mismo problema–, intercalando en la traducción anclajes de coherencia reciclados del original, y teniendo siempre presente la obra en su conjunto. La autora muestra la aplicación práctica de esta norma mediante un ejemplo extraído de su traducción al euskara de *Gender Trouble* de Judith Butler.

## Résumé

Dans cet article, l'auteure présente sa liste personnelle de «normes» ou règles à suivre pour une «traduction adéquate». Elle considère «une traduction adéquate» celle proposée par la traductrice Kate Briggs qui, se fondant sur la définition donnée par l'expert en design David Pye sur le «bon artisanat», s'appuie sur deux concepts clés : *solidité* (fonctionnalité) et *comeliness* (équivalence et proportionnalité formelle). L'auteure pense que pour atteindre ces deux qualités il faut adopter l'approche holistique proposée par la spécialiste en traduction, Michelle Woods. En effet, celle-ci défend l'étude de chaque œuvre dans sa totalité, en tant qu'unité organique, comprise dans le contexte plus ample de ses circonstances et motivations. Aussi, l'auteure de cet article présente-t-elle sa nouvelle «norme», récemment ajoutée à sa liste, *whatever works*: pour traduire avec *solidité* et *comeliness*, on peut utiliser le procédé le plus approprié à chaque partie d'une œuvre – quand bien même les solutions à un même problème soient différentes –, intercalant dans la traduction des éléments de connexion récupérés de l'original et considérant toujours l'œuvre dans son ensemble. L'auteure nous montre l'application pratique de cette norme dans un extrait de sa traduction en euskara de *Gender Trouble* de Judith Butler.

## Abstract

In this article, the author presents her personal collection of “norms” or guidelines for an “appropriate translation.” She proposes a definition of “appropriate translation” based on that offered by translator Kate Briggs, whose definition in turn is based on the definition of good workmanship coined by design expert David Pye, which has two key concepts: *soundness* (functionality) and *comeliness* (equivalence and formal proportionality). The author believes that, in order to aspire to these two qualities, it is necessary to adopt the holistic perspective proposed by translation researcher Michelle Woods, who states that each work should be taken in its totality as an organic unit that must be considered in the wider context of its circumstances and motivations. In accordance with this, the author presents the “norm” incorporated most recently in her collection, *whatever works*, according to which it is legitimate to translate each passage of a work through the resource that can be best integrated in the text from the point of view of soundness and comeliness – although different solutions may be possible for the same problem – interweaving in the translation anchors of coherence recycled from the original, and always keeping the complete work in mind. The author shows the practical application of this norm through an example taken from her translation into Basque of *Gender Trouble* by Judith Butler.